



BIDEO-EEG MONITORIZAZIO LUZEA (BIDEO-EEG) - OSPITALERATUAK

NEUMOLOGIA-URTS

ZER DA BIDEO-EEG DERITZON MONITORIZAZIO LUZEA?

Miaketa neurofisiologiko bat da, eta garuneko jarduera bioelektrikoa erregistratzean datza; gutxienez, 24 ordu irauten du (geldirik, esnaldian eta loaldian). Horren bidez, muskuluen jarduera, loaren kalitatea, lo-kantitatea, zer lotura dagoen lo-nahasmenduekin eta nola hartzen duzun arnasa balioets daiteke. Proba hau ospitalean egin behar da, eta zure kasuan, 24 ordu iraungo du.

Probaren helburua da epilepsia duten pazienteen krisi-motari buruzko datuak jasotzea, tratamenduari erantzuten ez dioten epilepsien kontrola areagotzea, eta epileptikoak ez diren beste fenomeno paroxistiko batzuen diagnostiko diferentziala egitea (sinkopeak, pseudokrisiak...). Lo-nahasmendurik baduzu, larritasuna kalkulatu da eta tratamendua zehaztuko da, beharrezkoa izanez gero. Zenbaitetan, proba hau emaitzetan zalantza diagnostikoak daudenean egiten da, eztaba daezina izan ez den beste proba bat egin bada alde zuretik.

NOLA PRESTATU PROBA EGITEKO?

Gomendatzekoa da dutxa hartzea, ilea garbitzea eta lakarik edo gominarik ez erabiltzea, ezta ilean botatzen den beste produkturik ere. Gizonetzkoa bazara, egin bizarra etorri aurretik. Bizarra baduzu, nahikoa da pixka bat murriztea. Gosal dezakezu.

EEG proba lo egin gabekoa bada, ezin duzu lo hartu aurreko gauean. Hala bada, dagozkion argibideak emango dizkizute.

NON ETA NOLA EGINGO DIDATE PROBA?

Eskuarki, alde zuretik jarriko dira zurekin harremanetan monitorizazioa egiteko eguna zehazteko. Medikamenturik hartzen baduzu, ez duzu zertan baztertu, besterik esaten ez badizute behintzat. Etxeko tratamendua eraman behar duzu. AUOko Santiago egoitzara joan behar duzu adierazitako orduan, behe solairuko ate nagusitik sartuta dagoen Harrera Zerbitzura. Neurologia Zerbitzuan ospitaleratuko zaituzte, 6B solairuan.

Ohiko jarduerak egin ditzakezu ospitalean, harik eta elektrodoak jartzen dizkizuten arte. Une horretatik aurrera, ekipo batera konektatuta egongo zara, eta beraz, ezingo zara gelatik atera. Zerbait ekar dezakezu entretenitzeko: liburu bat, ordenagailua... **Norbaitek egon behar du zurekin une oro.**

Loaren Unitateko erizaintzako langileak gelara joango dira elektrodoak jartzeko; gerora haiek kenduko dizkizute. Zenbait kable jarriko dizkizute buruan, toraxean, abdomenean eta gorputz-adarretan. Ekipoak erregistratzen duen informazioa ordenagailu batera bidaliko da. Probak iraun bitartean, loaren laborategiko arduradun batek gainbegiratuko du guztia; ezer behar izanez gero, abisatu erizaintzako langileei. Aurreko guztiaren osagarri eta zure segurtasuna bermatzeko, TB kamera batzuek grabatuko zaituzte une oro.

Probak ez dakar arriskurik; ez du minik ematen, eta ez da oso deserosoa, etxetik kanpo egun bat baino gehiago eta kable batzuk jarrita egotea baino ez. Ospitalean bazkaldu, afaldu eta gosalduko duzu. Proba bukatutakoan, etxera edo lanera joan ahal izango zara, alta-txostena jaso ondoren.

Hartu kontuan egonaldia luzatzeko aukera dagoela mediku arduradunak beharrezkotzat jotzen badu; halakoetan, batzuetan monitorizazioarekin jarraitzen da eta beste batzuetan kendu egiten da. Zure neurologoak kontsultan bertan emango dizu probaren emaitzaren berri.

